

hondo-hondotik

Txema Aranaz Cordon

(1936an desagertu eta fusilatutako baten iloba)

Nafarroako Legebiltzarreko atea jo dute fusilatuek

Legebiltzarreko Bizikidetzat Batzordea joan ginen Hildakoen Senitartekoen Elkartekook (AFAN 1936) otsailaren 11n. Han, harrera ona eta adeitsua egin ziguten talde guztiek, buruan duzen horrek izan ezik: bere us-teak direla tarteko, ez da gai izan 36ko matxinatze militarra eta gure senitartekoei eginiko krimenak kondenatzeko.

Hitzordur horri buruzko kronika batzuk argitaratu dituzte, eta horietan ez dira agertu ere egiten lortutako hitzarmenak; are gehiago, balioa kendu diete. Gainera, badakigu zeintzuk diren Batzorde horrek Bozeramaileen Kontseiluari erakutsi behar dion zirriborroa osatzeko eztabaidatu beharreko lau puntuak, eta argi ikusi dugu desagerrarazi egin dituztela, bai gure manifestua, bai horri egitura ematen dioten Justizia irizpideak. Gure proposamena —eta ez beste bat— Nafarroako udaletara ere eraman dugu, eta laguntzeko asmoa duen edonoren eskura jartzeko ari gara; beraz, gauza batzuk zehaztea beharrezkoa da. Nire izenean azalduko ditut, baina gure elkartearen iritzi eta nahi argiak errespetatzea espero dut.

1. Lehenik eta behin, argi utzi nahi dut gure elkartearen jardura eta iritziek ez dutela inolako zerikusirik ezin alderdi-jardura eta helburuekin.

2. Hildakoen senitartekoak eta hurbileneko biktimak gara; beraz, guri dagokigu gure ekintzen eta proposamenen edukia erabakitzea, gero Legebiltzarreko entzun eta jaso ditzan; eta ez alderantziz.

3. Alderdiek hainbat ekimen edo hitzarmen egiten badituzte, eta gure txostenak dioenarekin bat ez badatoz, haien erantzukizuna izango da. Guk Justiziarri eginiko eskaria hain da nabarmena, ez du behar *itxura hobetzeko operazio* edo *ingeniaritza politiko*ko laguntzarik.

4. Orain arte ez dugu parte hartu —ezta hartuko ere— inolako hitzarmenetan *laguntza gehitzeko* asmoz, gure gutxieneko justizia eskaera zilegiak zentsuratu edo estal baitaitezke.

5. Legebiltzarrek hitzarmen bat onartzen badu gure elkartearen testua errespetatu gabe, haren erantzukizuna izango da, eta ez du gure laguntzarik jasoko. Tamalez hala gertatuz gero, hala jakinaraziko diegu gure herrikiideei.

6. Emandako informazioaren artean, *Mendekuaren berriazko baztertea* izeneko testu bat dago. Besteak beste testu horrek osatzen zuen gu sortu aurretik Batzarrek Legebiltzarreari eraman zion txostena, eta Kontseiluak zirriborroan jaso du «ia-ia inolako aldaketarik gabe». Fedonez egin dutela pentsatu nahi dugu, baina testu hori ez da gure Elkarteak aho batez onartu zuena Legebiltzarreari eramateko. Are gehiago, «hasiera bateko zirriborro arrunt» gisa aztertu genuenean ez genuen onartu, eta batik bat mendekuaren ingurukoak baztertu genituen. Hala erabaki genuen, hildako gure senitartekoengatik eta geugatik; izan ere, inork ezin gaitu sartu susmagarrien zakuan, eta miatu, eta ezin digute eskatu alde aurretik adierazteko *asmo onak* ditugula; eta behin *desinfektatu* ondoren, Ordenaren aldeko jendearengana joateko moduan gaudela eta ezin gaituzte hara bidali. Erakunde horiek oraindik ez dute barkamena eskatzeko duintasunik izan, eta hildako gure senitarteko askok eta askok bide bazter eta hobi frankistetara jarraitzen dute. Erakunde horiek eredu izan behar zuten duela urte asko; haatik, ezin dute lotsa detektatzailatik pasatu ere egin, beren zakutoak frankismoaren monumentu eta sinboloz beterik baitaizkate, eta oraindik distira ateratzen diete.

Gizarte hau demokratikoa bada, eta ez badago Nafarroan izua eta garaipenaren itzal handia inposatu zutenen beldur eta xantaiaren pean, zergatik eskatu behar dugu barkamena zor zaigun justizia eskatu aurretik? Gure elkartek ez du zertan lotsatu, ez baitugu eruririk nahi, ezta ulermen paternalistarik ere.

7. Gure erreklamazioak Justizian oinarritzen dira, eta hain dira oinarritzaileak, non ez dieten erreparatu ere egin NBE-

ren 1992ko ebazpenak desagertutako pertsonen gainean emandako eskubideei. Ebazpen horrek orokorrean dioenez, «sistematikoki hori egitea gizadiaren aurkako krimena da», eta eskatzen du finkatzeko «hori zigortzeko eta saihesteko arauak». Horrela jarraitzen du:

7. artikulua: «Ez dago egoerarik behartutako desagertzeak justifikatzeko balio duenik».

17. artikulua: «Behartutako desagertze guztiak etengabeko delitutzat joko dira, bai egileek heriotza ukatu eta desagertutako pertsona non dagoen ezkututzen jarraitzen duten bitartean, bai gertatutakoa argitzen ez den bitartean».

18. artikulua: «Egileek edo ustezko egileek ezingo diete etekinik atera amnistia bereziko legee, ezta edozein prozedura edo zigor penaletik libratzeko balio duten bestelako neurriei ere».

Badirudi politikariek ez dakitela delitu horiek ez dutela preskribitzen, Espainiako Estatuaren ebazpena betetzera derrigor-tuta dagoela, eta hala egin ezean, Nazio Batuen Goi Komisarioak esku hartzeko gaitasuna duela, beste leku batzuetan egiten ari den bezalaxe. Lotsagarria da gogoratu behar izatea gu ez garela gaizkileak, Justizia eskatzen duten eskubide horien subjektuak baiziki.

8. Lau puntuko proposamen zirriborro bat prestatu du Bizikidetzat Batzordeak Bozeramaileen Kontseilurako, eta Legebiltzarreko osoko bilkuran bozkatu behar ditzate puntu horiek. Irakurri ditugu, eta harridura eta etsipena sortu digute; izan ere, ez dute ezabatu gure elkartearen txostena soilik, Legebiltzarreko nahitaz onartu eta egin behar lukeen autokritikaren aztarna oro ere ezabatu dute. Testu horrek isilean gorde-tzen ditu kontu handiz frankismoarekin eta krimen haien erantzuleekin harreman zuzena duten erreferentzia guztiak. Oroitzapen beltza ere ez dira hiltzaileak; ez dago hiltzailerik. Halaber, isilean gorde dituzte beste erakunde batzuen erantzukizunak; hala nola Eliza Katolikoarenak

edo saritutako prentsa jakin batenak: gertaera ankerrenak prestatzen eta gartzan laguntza handia eman zuten. Oraindik zutik dirauten monumentu eta sinbolo frankisten inguruan ere ez dute hitzik aipatzen.

Zein demokrazia arraro eta gaiztotua! epaile paternalista bihurtzen du borroroa, eta dohain batzuen truke bere biktimek lo-kuluxka lasai egiten utz diezaioten nahi du.

Frankismo eta itxaronaldi urte askotxo izan dira, eta orain ezin dugu tamaina horretako irainik onartu.

9. Batzuek esaten digute ez dela ona «zauri zaharrak berriz irekitzea», hainbat arrazoiengatik: alderdi interesengatik, ezjakintasunagatik, beldurragatik edo ezkutatzeko zerbait dutelako. Baina badakite ezin dela berriz ireki sekula itxi ez dena, eta badakite ezin digutela eskatu gure hildakoak bide bazterrean uzteko, errudunak eta gaizkideak gogaitu ez ditzen. Jose Antonio Lorente NATOko ikertzaile bekadun eta identifikazio genetikoan adituak berriki esan duenez, prozesu demokratikoa «gaitz osatu» zen, eta ezin omen da esan gu mamu zaharrak astintzen ari garenik: «Pertsona orok duin hilobiratzeko eskubidea baitu, eta familiek hildakoak nahi duten tokian hilobiratzeko eskubidea baitute».

Zauriak orbain daitezke, eta zilegi egin dezakete bizikidetzat justuago bat; hala izango ahal da! Baina hori horrela izateko, beharrezkoa da gertaera horien eragileek eta babestu zituzten erakundeek aitortzea, eta biktimei barkamena eskatzea; baita gizarte osoari ere. Hain da oinarritzailea, non kolpearen aldekoek defendatzen zuten erlijioak ere euskarri eta nahitaezko baldintza gisa duen bere funtzionamenduan.

Diktadorearen itzalak mende berria zikindu du, eta ez soilik fuel-olioz. Orain, garbitzen hasteko aukera dauka Nafarroako Gobernuak. Horixe eskatzen diogu.

Erredakzioan itzulia

Ilbeltza euskararentzat

(Aurreko orrialdetik dator)

anekdotiko gisa geratzen da. Enborrezko ikasgaiak gaztelaniaz izanen dira. Borondatezko ikasgai batzuk, berriz, agian euskaraz eman litezke, baldin eta irakaslea bere borondatez horretarako prest agertuko balitz eta unibertsitatearentzat gastu gehigarriarik ekarri ez eta horrela... Euskararen erabileraz bestelako arloetan, seinaleak, inprimakiak, idatziak eta abar, lehen aipatu dugun Euskararen Dekretuari lotzen zaizkio.

Euskararen eta beronen normalizazio-

aren kontrako eraso gogor baten aurrean gaude. D ereduak Nafarroako eskola publikoetako matrikulazio berrien %35 hartzen ditu azken urte hauetan, baina euskarak eta hezkuntza sistemak bere osotasunean euskararen presentzia duina eta are gehiago sustapena behar du Unibertsitatean koherentzia minimo bat izango badu, baina, zoritxarrez, ez doaz hortik Nafarroako bi alderdi nagusien urratsak.

Paradoxa mingarria, gure *Lingua Navarrorum* Nafarroako Unibertsitateak desterratu egin nahi dute.

Azpimarratu egin nahi nuke PSNk bi gai horietan duen jokabidea, UPNrena oso ezaguna dugulako zoritxarrez. Euskararen Dekretuarekin PSNren jarrera abstentzioarena izan zen, hau da *laissez faire* UPNri. Baina Unibertsitateko Euskararen Legearekin aurrera joateko erabakia hartzen badu, zera geldituko litzateke argi xamar, PSN eta UPN Nafarroari dagozkion ardatz gaietan, eta euskara horietako bat da, ez direla desberdintzen.

Analisis gehiago sakonduz, argi dago zenbait sektoretatik UPNri aurre egiteko borondate horretan, PSNk euskararen gaiarekin hartutako jokabideak alderdi horrekin adostasunera iristeko zanga gaindiezina litzatekeela. Eta horrek beste ondorio batera ere eraman gaitzake,

hots, PSNk nahiz eta kanpora begira UPNren alternatiba dela aldarrikatu, oraingoz eta datozen hauteskundeetarako ez dutela beren buruan konfiantza handirik esan nahiko luke edota UPNk oraindik ere alderdi sozialista harrapatua daukala aurreko agintari eta horrelakoen ustelkeria eta bestelako *kasu ezkutuen* kontura.

Kontuak kontu, Nafarroako gizarteari tokatzen zaio beste behin ere erantzunak ematea eta euskararen normalizazioaren galda pizturik mantentzea. Otsail honetan bertan izanen ditugu aukerak parte hartzeko hainbat modutan eta ekimen anitzetan; matrikulazio kanpaina, kontzentrazioak, manifestazioak eta abar.

Asko gara; bildu eta mugitu gaitzen!